

Susana Sanjuán, Kutxabankeko Komunikazio eta Ospe Korporatiboko zuzendari berria

- **Informazio Zientzietan lizentziaduna EHU**n, ibilbide profesional luzea du komunikazio eta harreman publikoen zuzendaritzan enpresa eta talde kotizatuetan eta erakundeetan
- **Bera sartzeak komunikazio-taldea, bankuarentzat funtsezkoa den arloa, indartzen du, etapa berri batean bere estrategiari erantzuteko eta Kutxabanken barne-, kanpo- eta erakunde-ingurunearekiko hurbiltasuna mantentzeko helburuarekin**

2024ko irailaren 3an. Susana Sanjuán Merinero da Kutxabankeko Komunikazio eta Ospe Korporatiboko zuzendari berria. Zuzendaritzako kide hau bankuaren komunikazio-taldean, erakundearentzat funtsezkoa den arloan, sartu da, bankuaren barne-, kanpo- eta erakunde-komunikazioa etapa berrian indartzeko eta bere gizarte-ingurunearekiko eta interes-taldeekiko hurbiltasunari eusteko.

Susana Sanjuánek ibilbide profesional luzea du komunikazio, ESG eta harreman publikoen zuzendaritzan enpresa eta talde kotizatuetan eta erakundeetan. "Eskertzen dut konfiantza, eta ilusio handiz hartzen dut ospearen eta komunikazioaren esparruan profesional handiek osatutako talde bat gidatzeko erronka, gizartean eragin positiboa sortzera eta merkatu globalean lehiatzera bideratua baitago, bere nortasunari eta lurraldearekiko konpromisoari uko egin gabe".

Esperientzia zabala DIRCOM gisa

Susana Sanjuán Informazio Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Informazio Ekonomikoko Masterra du UCM eta APIEn, eta PDD bat IESE Business School-en.

Azken urteotan, Adif-eko Komunikazio eta Ospe Korporatiboko zuzendaria izan da. Aurrez, 2018 eta 2021 artean, Iberdrolako Komunikazio-zuzendaria izan zen, eta, bost urte baino gehiagoz, partner-a, Kreab gai publikoetako aholkularitza-enpresako Komunikazio Korporatiboko arloa zuzenduz. Era berean, Gamesako Komunikazio eta Jasangarritasun zuzendaria izan da, baita Abertis-eko komunikazio-managerra eta Ferrovial eta Cintrako komunikazio-burua ere, eta hainbat komunikabidetan lan egin du eta hainbat aldizkaritan kolaboratu du.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.
